

1. GAIA.

EKONOMIA PUBLIKOAREN IKASKETA

1.1. EKONOMIA PUBLIKOA:

Edukina, helburu nagusiak eta ikuspegiak

1.2. GASTU PUBLIKOAREN MAILA:

1.2.1. Bilakaera historikoa eta nazioarteko konparaketa

1.2.2. Gastu publikoaren egitura

1.2.3. Gastu publikoaren deszentralizazioa

1.1. Ekonomia Publikoa: Edukina, helburu nagusiak, ikuspegiak

A. EDUKINA



Ekonomia Publikoak, merkatu-ekonomia batean agintari publikoek burutzen duten *esku-hartzea* aztertzen du, batez ere *diru-sarrera eta gastu publikoen bidez* burututakoa.

B. HELBURU NAGUSIAK:




Ekonomia Publikoak, batez ere *sarrera eta gastu publikoen* bidez burututako esku-hartze publikoen *hautaketa, praktikan jartzea eta efektuak* aztertzen ditu, *eraginkortasun* eta *ekitatearen oinarriko irizpideen* arabera.

Irizpide hauek egungo Sektore Publikoen *bi helburu nagusirekin erlazionatzen* dira:


- **Baliabideen esleipen eraginkor** bat lortu
- Herrialde bateko **errenta eta aberastasuna birbanatu**

Erantzun nahi diren galderak:



- Zein da merkatu-ekonomia batean **esku-hartze publikorako justifikazioa**?
- Jarduera publikoa **prozesu politiko**en emaitza dela kontuan harturik, nola antolatu behar dira prozesu horiek **eraginkorrak eta ekitatiboak izan daitezten**?
- Zein da **Sektore Publikoen portaera**? Zein **efektu** du esku-hartze publikoak **hiritarren ongizatean**?
- **Sarrera eta gastu publikoak eraginkorrak** al dira? Baliabideak modu **ekitatibo** batean banatzen al dira?
- Zein **gobernu-maila da egokiena** jarduera publiko ezberdinak garatzeko? Nola **finantzatu** behar dira gobernu-maila horiek?
- ...

C. IKUSPEGIAK:



➤ Ekonomia Publiko *Positiboa*:

➤ *IZAN*

➤ Teorikoki eta ikerketa enpirikoaren bidez, *Sektore Publikoaren funtzionamendua* aztertu nahi du

➤ Ekonomia Publiko *Normatiboa*:

➤ *IZAN BEHAR*

➤ Dauden murriztapenak kontuan harturik, lortu nahi diren *helburuak lortzeko biderik egokienak proposatzen* ditu

1.2. Gastu publikoaren maila:

1. *Gastu publikoaren bilakaera historikoa eta nazioarteko konparaketa*

- XX. mendean zehar **Sektore Publikoak** gehikuntza oso nabarmena izan du herrialde garatu guztietan.
- Egun, gastu publikoak ia **BPG-ren %50** suposatzen du herrialde garatuetan. Hau da, ekonomia hauetan sortutako errenta-euro bakoitzeko, ia 50 zentimoren erabilera Sektore Publikoak erabakitzen du.
- Gastu publiko horren %60 gizarte-gastua da: Pentsioak, langabeziagatiko prestazioak, hezkuntza, sanitatea, etxebizitza ...
- Espanian**, diktadura garaiko gizarte-gastuaren garapen eskasiaren ondorioz, **urte askotan zehar** gastu-maila herrialde garatuen mailaren oso **azpitik** egon zen. Hau amaitzean, gastu publikoan hazkunde garrantzitsu bat eman zen. Horrela, 10 urtetan. BPG-ren %25 izatetik (1975) %40 izatera (1985) igaro zen.

Gastu publikoa, BPGren %

	1950	1960	1970	1980	1990	1995	2000	2010	2015
Suetzia	22,0	31,0	42,1	60,0	58,5	65,2	55,6	51,2	50,3
Danimarka	--	24,8	40,8	53,1	56,1	59,3	53,5	56,7	54,8
Alemania	30,4	32,4	38,5	48,0	45,3	48,3	45,1	47,3	44,0
Frantzia	27,6	34,6	37,1	45,4	49,7	54,4	51,6	56,4	57,0
Italia	30,3	30,1	32,6	43,0	53,8	52,5	48,2	49,9	50,4
Erresuma Batua	34,2	32,3	36,9	43,2	39,2	43,9	36,8	48,0	42,8
Espainia	8,2	18,8	20,7	31,3	42,6	44,4	39,1	45,6	43,8
EB	--	29,9	36,0	45,6	47,7	50,3	46,2	50,4	47,8
Estatu Batuak	22,5	27	31,7	33,1	35,5	32,5	36,4	42,9	37,7
Japonia	18,0	18,3	18,5	31,2	31,1	35,9	40,6	40,6	42,1

•50. hamarkadan, Alemania, Frantzia, Erresuma Batuan eta Italian burututako gastu publikoa, hiru eta lau bider Espainiakoa zen. Diktadura amaitzean, Espainiako gastu-maila EBko gastuaren %60 baino txikiagoa zen,

•Gaur egun gastu-mailari buruzko ezberdintasunak asko murriztu dira, EBeko gastuaren %92 izanik

2. Gastu publikoaren egitura:

Estatuaren aurrekontuaren banaketa gastu-politika ezberdinetan

	1993	2000	2005	2010	2016
Azpiegiturak	2,9	3,6	4,5	4,0	4,4
Nekazaritza eta Arrantza	2,9	3,5	3,3	2,5	2,1
Industria eta Energia	0,8	0,8	0,7	0,8	1,6
Ikerketa	0,7	1,5	2,0	2,6	1,6
Garraio-subentzioak	0,9	0,7	0,5	0,4	0,4
JARDUERA EKONOMIKOAK	8,2	10,1	11,0	10,3	10,1
Hezkuntza	3,9	1,5	0,6	0,8	0,7
Sanitatea	11,3	13,2	1,4	1,3	1,1
Etxebizitza	0,4	0,3	--	--	--
Pentsioak	22,6	27,6	31,75	30,9	38,5
Langabezia eta gizarte- babesa	11,9	8,8	9,8	13,7	9,6
Enplegua	1,3	2,4	2,5	2,2	1,5
GIZARTE- ZERBITZUAK	51,4	53,8	46,05	48,9	51,4
Justizia	0,9	0,4	0,5	0,5	0,5
Defentsa eta kanpo- politika	3,0	3,1	3,2	3,1	1,6
Hiri-segurtasuna	2,0	2,2	2,6	2,5	2,2
Zerga-administrazioa	0,5	0,4	0,6	0,4	0,4
ZERBITZU OROKORRAK	6,4	6,1	6,9	6,5	4,8
Lurralde-erakundeen finantzaketa	11,2	13,7	20,4	21,0	13,9
Zor publikoa	15,5	8,3	7,7	6,6	9,5
ZORRA ETA TRANSFERENTZIAK	26,7	22,0	28,1	27,6	23,4
Beste politika batzuk	7,3	8,0	7,9	6,7	10,3

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministrarritza

Kontuan hartzekoa:

- **Gizarte-zerbitzuen garrantzia**, bereziki pentsioak, langabezia eta gizarte-babesa.
- **Pentsioen** geroz eta garrantzi handiagoa.
- Autonomia-erkidegoetara **hezkuntzaren deszentralizazio-prozesua 2000 urtean amaitu** zen (nahiz eta 2000 urteko aurrekontuetan Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Asturiaseko aurrekontu-zuzkidurak barneratuta egon oraindik). 2000 urtera arte soilik Andaluzia, Katalunia, Balentzia, Galizia, EAE, Nafarroa eta Kanariak zuten bereganatuta.
- Autonomia-erkidegoetara **sanitatearen deszentralizazio-prozesua 2002 urtean amaitu** zen. 2002 urtera arte soilik Andaluzia, Katalunia, Balentzia, Galizia, EAE, Nafarroa eta Kanariak zuten bereganatuta.

3. Gastu publikoaren deszentralizazioa

Espanian, tradizionalki bi gobernu-maila egon dira: Zentrala (Gobernu Zentrala eta Gizarte-Segurantza) eta Lokala (Udal-korporazioak). 1978ko Konstituzioarekin, gobernu-maila berri bat sortzen da, AUTONOMIA-ERKIDEGOAK.

Gobernu-mailen arteko gastu publikoaren banaketa:

GASTU-BANAKETA 2015 urtea	Zentrala	Bitartekoa	Lokala
Espainia	56,1	32,6	11,3
<u>Herrialde Federatuak</u>			
Alemania	60,4	22,7	16,9
Austria	68,9	16,0	15,1
Suitza	42,5	38,0	19,6
EE.BB	51,5	48,5	Bitartekoan
Kanada	31,5	47,5	21,1
Mexiko	53,3	39,4	7,3
<u>Herrialde unitarioak</u>			
Erresuma Batua	77,8	-	19,7
Frantzia	80,3	-	17,5
Italia	72,3		27,7
Suedia	50,7	-	49,3

•Ikusten den bezala, **Autonomia-Erkidegoei** gastu publikoaren %30 baino gehiago transferitu zaie. **Beste herrialdeekin alderaturik, Espainian autonomia-erkidegoei zuzenduriko deszentralizazioa garrantzitsua izan da. Tradizionalki federatuak izan diren herrialdeen bitarteko mailara iritsi da, eta batzuetan gainditu egin da .**

•**Udaletxeen** eskumenak, berriz, 80.hamarkadaren hasieran zituztenen antzekoak dira. Espainiako deszentralizazio-ereduaren ezaugarri bat, **udaletxeen paper murriztua da, beste herrialde federatu batzuekin alderaturik.(-herrialde unitarioetan udaletxeek garrantzi handia izatea normala da, bitarteko gobernu -mailak ordezkatzan dituztelako-)**

•**Ondorioa:**

Espainian, deszentralizazio-maila nabarmena da baino batez ere Autonomia -Erkidegoetara zuzendu da.